

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a / 692. zenbakia

TXOTXONGILO PIRATAK

Bihar, zapatua,
Gorakada taldearen ikuskizuna
Amaia Udal Antzokian



ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/6 • GAZTEAK: 'BULLYING'-AREN AURKAKO JARDUNALDIAK/13

ARGAZKIA: GORAKADA

OSASUN GIDA/20

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 29**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ZAPATUA, 30**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- DOMEKA, 31**
Azkoaga, Iturriotz 17. 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 1**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- MARTITZENA, 2**
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 3**
Amezua, Santa Marina 32. 943 79 09 74
- EGUENA, 4**
Español, Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 5**
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DVA. 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
Egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
Egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak. 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44
- ERTZAINZTA**
Arrasate. 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRIAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- San Juan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (elebiduna)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 meza nagusia (elebiduna)
19:00 (elebiduna)
- Santa Marinako eliza**
Zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (gaztelaniaz)
- San Isidro eliza**
Zapatua
20:00 (euskaraz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Domeka
12:30 (elebiduna)

OHARRAK

DOMU SANTUKO AUTOBUSAK
Domu Santu eguna dela eta, Leintz Garraioek zerbitzu bereziak jarriko dituzte domekan eta astelehenean. Domekan autobus bakarrak orduro egingo du zerbitzua, 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 18:30era; eta astelehenean, bi autobusek egingo dute, ordu erdiro, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 19:00etara. Ordutegiak geltokietan daude.

1953AN JAIOTAKOAK
1953an jaiotakoek jaia egingo dute azaroaren 6an. San Juan Bataiatzailearen elizan meza entzungo dute, eta Saran bazkaria eta dantzaldia izango dituzte. Autobusak egongo dira. Interesatuak Euskadiko Kutxan 50 euro sartu beharko dituzte, azaroaren 3a aurretik.

1954AN JAIOTAKOAK
1954an jaiotako gizonezko eta emakumezko arrasatearrek jaia egingo dute azaroaren 13an. Interesatuak urriaren 30a aurretik eman beharko dute izena, eta 50 euro ordaindu Euskadiko Kutxan.

HALLOWEEN JAI
Domekan, urriaren 31n, gaeuz, Halloween jaia egingo dute Gure Leku tabernan.

AEDrenAGENDA

LEINTZ BERTSO ESKOLA ABIAN EGONGO DA LASTER
AED, Axtroki eta Loramen-di elkarteek indarrak batu eta Leintz Bertso Eskola sortzeko ahaleginetan dabilta.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.


ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Herriko emakumeei zuzendutako gida egin gura

Udaleko Emakume Saila herriko emakumeendako gida egiten ibili zen. Gida horretan emakumeendako zein zerbitzu eskaintzen ziren eta non zeuden azaldu gura zuten. Are gehiago, helburua zen emakumeen parte-hartzea bultzatzea. Gida hori etxeko etxe banatu gura zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Restau entzuten da gehiago. —Ezetz erreztatu neri sakia.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMO Martitzena, 26	10 °C
MAXIMO Eguaztena, 20	28 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	3,4 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 20	28 °C 18 °C 0,2 l/m ²
Eguena, 21	27 °C 15 °C 0,8 l/m ²
Egubakoitza, 22	24 °C 12 °C - l/m ²
Zapatua, 23	27 °C 12 °C - l/m ²
Domeka, 24	27 °C 14 °C - l/m ²
Astelehena, 25	26 °C 11 °C - l/m ²
Martitzena, 26	16 °C 10 °C 2,4 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7

DANBAKA)))))))
DEBAGOIENENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Arrasate Irratian:

POTEMKIN (Oñati):
Zapatuan: 16.00
martitzenean: 20.00

JIM TNT (Arrasate):
Domekan: 16.00
eguztenean: 20.00

Danbaka lehiaketako kontzertuak eta astearen gainbegiratuak datozen egunetarako

Dagoeneko hasi da Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketa. Urriaren 22an Elgetako Espaloia antzokian zuzenean izan genituen ibarreko lau talde. Arrasate Irratiak kontzertuak grabatu ditu, datozenak ere grabatuko dituen moduan. Horrela, bada, asteburuan, lehenengo emanaldian taula gainean izan ziren Oñatiko Potemkin taldea eta Arrasateko Jim TNT bakarlarriaren kontzertuak entzun ahal izango dituzue. Zapatuan 16:00etan Potemkin, eta dome-

kan, berriz, arrasatearraren txanda, Jim TNT, izango da. Baina kontzertu horiekin gozatzeko bigarren aukera bat ere izango duzue: martitzen eta eguztenean, 20:00etan.

ASTEBURUKO GAINBEGIRATUAN
Horrez gain, zapatuan eta domekan, 10:00etan, astearen gainbegiratuak izango da, hainbat elkarrizketaz hornituta. Astelehena ere jaieguna denez, beste bilduma bat osatu dute irratiko lagunek.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratuak: Angel Larrañaga, Estatutoaren gainean; Martin Calvo; Larrait Arando sexologia, ezindur psikiokoaren sexualitateaz...
16:00 Danbaka: Potemkin.
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratuak
16:00 Danbaka: Jim TNT.
- ASTELEHENA**
10:00 Elkarrizketa bilduma: Irune Ibarra grafologa; Mikel Castillo eta Eva Romero European zehar egindako bidaiak.
- MARTITZENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
11:05 Musika
12:05 Herriko albisteak
12:20 Zorion agurren tartea
12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

KALEINKESTA/ Gobernuek telebisiñoko programaziñue regulau egin biherko leuko?



MARI MAR GUTIERREZ
Langillie




PILAR OTADUI
Langillie



JOSE LUIS ONSOÑO
Langillie



ITSASO RETOLATZA
Langillie



JOSU BELAR
Langillie



ALBERTO ORTIZ DE URBINA
Iksaliek

Egixe da tele-basura haundixe dauela, baiñe ez dakit Gobernue dan hori regulau biher dauena. Zapatuen ez gaituen bideorik hartu, eta telebisiñuen *Salsa rosa* eta *holakuek* bakarrik euzen!

Ez dakit Gobernuek edo zeñiek, baiñe egixe da telebisiñue gaur egun desmadririe dala. Umien ordutegixe ez daue zainketan, eta lehengo famosuek, behintzet, klase apur bat eukien.

Zeozer egin biherko leukie, edozer gauza emuten daue-eta. Baiñe hori ez da Gobernuen lana, hori telebisiño kataiek regulau biherko leukie, eta programaziñue kanbixau.

Hori ez dau Gobernuek regulau biher, hori ikusliok regulau biherko geuke, holako programak ez ikusitte. Basurie badau, demostrau biher dogu hori ez dogule gure ikusi.

Gaur egunien dauen programaziñue txapuza galanta da, ez dalako ez ludikue eta ezta edukatibue be. Oin, Gobernuek eskue sartu biher dauen horretan... Hori ez naz sartuko.

Neuk ez dot uste Gobernuek ezer regulau biher dauenik, hori zentsurrie izengo litzake-eta. Hori medixuek egin biher daue, eta basurie badau hori gure doguleko da.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ALDAMIOAK TRABAN Otolara kaleko lehenengo zenbatian lanak egiten ibili dira eta langileek aldamioak ipini dituzte espazioan. Hainbat herritarrek esan digute haserre daudela, aldamioek ez ditelako pasatzen uzten ez ume-kotxeei ezta gurgil-aulkiei ere. Are gehiago, hiruzpalau asteburutan ez dituzte aldamioak lekuz mugitu. Herritarrek eskatu dute Udalak halako oztopoak arautzeko.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7	KIROLA / 8	KULTURA / 10
Monterron itxi egin dute	Arrasate Hiria Txapelketa	Juan Montianori elkarrizketa
Haizearen eta egin behar dituzten lanen eraginez, Monterron parkea itxita egongo da hilabetez-edo.	Arrasate Hiria Xake Txapelketa-ren azken jardunaldia jokatu dute gaur, Altamiran.	Juan Montiano arrasatearrak hirugarren liburua argitaratu du, <i>Los Vabagundos</i> .

ASTEKODATUA

114

ORTU EGOERA IRREGULARREAN AZTERTUTA

Arrasaten egoera irregularrean dauden 114 ortu aztertzen ibili da Udala. Izan ere, Garagartzan egin gura dituzten ortuen harira, herrian hainbat azterketa egingen dabilta.

BESTE EKESANA

Eusko Ikaskuntzak bere proiekturik minenetakoa aurkeztu du urriaren 19an Argentinako La Plata hirian, hain zuzen ere Buenos Airesko hiriburuan argentinarrak euskal komunitateak eratutako Euskal Astearen barruan. Xabier Retegi Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta Gonzalo Auza proiektuko zuzendariak hitz egin zuten EuskoSareari buruz hainbat lagunen aurrean. (...) Federación de Entidades Vasco Argentinas (FEVA)-k antolatutako ekitaldian, garbi geratu zen EuskoSare euskaldun guztiontzako lanabesa dela, komunitate birtuala osatzeko interesatuen esku uzten dena. Retegik auzolaneko adibidetzat jo zuen proiektu berria, bitartekoa Eusko Ikaskuntzak sortu duen baina euskal komunitateari eskaintzeko"

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
'EUSKONEWS'/04-10-20

HERRITARREN BERBAK/ Ander Etxeberria



Hiriburuen lilura

Hortik zehar badaude hiri batzuk lo-hiriak bezala ezagutzen direnak. Hiri mota honen ezaugarria da bertan lo egiten dela, baina bestelako jarduerak inguruko hiri handiagoetan egiten dituztela biztanleek. Batean lo, eta bestean, normalean hiriburuan, lana, aisia, ikasi, etab. Arrasate ez da lo-hiria. Gurean lana neurri handi baten herrian dago eta gainera kanpotik jende asko dator hemengo enpresetara. Ez bakarrik lana, ikasi ere posible da adar batzuetan osotasunean bertan egitea inora joan gabe. (Bestalde, lo-hiritan ez bezala, Mondragoeko etxebizitzaren prezioak hiriburuaren bezain garestiak dira).

Hala ere, asteburu eta jai egunetan auto ilarak izaten dira Arrasate eta gertuen daukagun hiriburuaren artean: ordu batzuetan joan eta joan, eta beste batzuetan etorri eta etorri. Zerbaiten seinale izango

da, arloren bat -aisia eta ekipamendua- hain garatuta ez daukagunaren seinale, edo nahikoa ez dela, edo ezagutzen ez dela, edo eta edonola ere hiriburuaren lilura handiegia dela.

Urte gutxi barru kotxeak ez dira ilaran joango Gasteizera, edo abiadura txikian ez behintzat, autobidea amaituta egongo baita. Eta orduan zer? Gipuzkoako autobide tartea kudeatzeko ardura duen Bidegi enpresako zuzendari nagusiak berak, autobidearen alderdi positiboak

nabarmentzeaz gain, ondoko kezka agertzen zuen orri hauetan aste batzuk dela: "Beldur pixka bat ematen dit, jende askok ez ote duen Gasteizera alde egingo". Izan ere, handia da hiriburuen erakargarritasuna eta ondorioz beste egin beharreko lana pisua ez galtzeko. Gainera, egoera okerragoa bilakatu daiteke EAEko hiru hiriburuaren lilura areagotuko lukeen Y grekoa egiten badute.

"Handia da hiriburuen erakargarritasuna eta ondorioz beste herriek egin beharreko lana pisua ez galtzeko"

Arrasate
PRESS

Otolara Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gáinzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriartzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Joan den urtean baino 700 kilo gehiago

Urriaren 15ean eta 16an Gipuzkoako behartsuenei emateko janaria batzen ibili ziren Gipuzkoako Elikagaien Bankukoak. Eroski merkataritza-gunearen kanpoaldean izan ziren, eta ekimenak arrakasta handia izan zuen, joan den urtean baino 700 kilo janari gehiago batu zituzten-eta; 4.004 kilo elikagai, guztira.

Gehien batu zituzten elikagaien artean daude azukrea (1.212 kilo), arrosa (681 kilo), dilista edo lentejak (566 kilo) eta pasta (404 kilo). Orain, Gipuzkoan behar handien dutenen familien artean banatuko dituzte elikagai horiek.

Kaleak garbi izateko erraztasunak

Arrasateko txakurren jabeek gero eta erraztasun handiagoak dituzte kaleak eta herri inguruak garbiago izateko, Udalak beste bi pipi-can jarriko ditu-eta. Eremu horiek itxita egongo dira eta txakurrek eremu horren barruan egin beharko dituzte euren beharrak. Gero, jabearen ardura izango da animaliak bertan utzi duena jaso eta horretarako jarrita egongo diren ontzietara botatzea.

Pipi-canez gain, baina, Udalak ontzi bereziak ere jarriko ditu kalean. Hori guztia egiteko 4.800 euro gastatuko dituzte.

Gripearen kontrako kanpaina, amaitzean

Datorren domekan, hilak 31, amaituko da gripearen kontrako kanpaina, eta egun hori izango da txertoa hartu ahal izateko azkena. Kanpaina duela hilabete pasatxo, irailaren 20an, jarri zuten abian, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren asmoa zen Gipuzkoan 132.000 txerto jartzea. Lan hori egiteko, Jaurlaritzak 377.000 euroko aurrekontua bideratu zuen. Txertaketa kanpaina batez ere hiru gizatalderi egon da zuzenduta: osasun alorreko langileei, gaixotasun kronikoa dutenei eta 65 urtetik gorako herritarrei.



Martin Calvoren liburuaren aurkezpena

Martitzen arratsaldean aurkeztu zuen Martin Calvok *Cooperativismo y cohesión social en Mondragón* liburua. Liburu hori Soziologia ikasketak amaierako doktoretza tesia da, baina moldatuta. Eta, funtsean, Estatuko etorkinek Debagoieneko euskal eskualdean izandako gizarteratzea aztertzea izan du helburu nagusi.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Aspaldiko gaitzak

Datorren astean Udal Liburutegiak, Hezkuntza eta Prebentzio sailen laguntzarekin, ekimen garrantzitsua jarriko du abian. Asmoa da umeen arteko erasoen gaineko jardunaldiak egitea. Horretarako, gaiarekin lotuta dagoen erakusketa herrira ekarriko dute, eta hainbat ikastetxetatik hori ikustera Monterronera eramango

dituzte. Horrez gain, begirale baten laguntzarekin, gai horren gainean hausnartu eta ariketak egingo dituzte. Are gehiago, gurasoei eta beste eragile batzuei ere esku hartzeko gonbidapena egin gura diete.

Oso txalagarriak dira Arrasateko Udal Liburutegiaren egiten dituzten ekimenak. Izan ere, mota askotako ekitaldiak antolatzen

senak daukate, eta hori txalotzekoa da.

Bestalde, umeen arteko erasoen gaia serio hartzeko modukoa da. Komunikabide batzuek hala *saltzen* duten arren, ez da gauza berria. Zoritxarrez, betidanik egon den gauza bat da. Etiketak jartzearen kontua modan dago, baina ume krudel batzuek egin dezaketen mina izugarria da, askotan azalerazten ez den arren. Hezkuntza oso garrantzitsua da hori konpontzeko!

ASTEKOIRUDIA



BEDOÑABE HAURRESKOLAREN INAUGURAZIO OFIZIALA EGIN DUTE

Hainbat oztopo gainditu ostean, lortu dute haurtzaindgi publikoa eratzea. Iaz eskola publikoak haur eskola eraikitze eskaera egin zuen, baina haurtzaindgiaren partzuergoak erantzun zuten esanez eskaera hori Udalak egin behar zuela. Prozedura luze baten ostean, baimen guztiak lortu dituzte eta

astean egin dute inaugurazio ofiziala. Ekitaldi horretan, Udaleko ordezkariak gain, partzuergoko kideek eta Eusko Jaurlaritzako arduradunek esku hartu dute. Eskolako zuzendaritzak eskerrak eman dizkie lagundu duten guztiei, batez ere gurasoei. /ARRASATE PRESS

BELEN MAIZTEGI

Domu Santu egunerako
lore-sortak, zentroak,
eta abar.

Enkarguak hartzen dira

Tele-ordainketa

Biteri etorbidea 13
Arrasate
Tel.: 943 08 15 44

LURAK

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Olin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



DENBORALDIKO AZKEN IRTEERA, DORLETAKO SANTUTEGIRA

Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeko lagunek urriaren 17an egin zuten denboraldiko azken irteera. Irteera horretan, baina, ez zuten kilometro askorik egin, Dorletako santutegiraino joan eta gero, Mendiolan egin zuten-eta hamaiketakoa. Aurten 2.500 kilometro egin dituzte, eta, sasoi-sasoi dandenez, gutxi sufritu zuten Dorletara igotzen. Bestalde, zikloturista taldeak aditzera eman gura du azaroaren 13an batzarra egingo dutela euren lokalean (19:00etan). Besteak beste, taldearen webgune berriaren gainean egingo dute berba. Batzarra egin eta gero, Musakolako Hostalean afalduko dute, eta omenaldia egingo diete taldeko bazkide nabarmenei. Afari horretara joateko aurrez eman behar da izena.



MARGOLAN EDERRAK EROSI GURA DITUENAK, ORAIN DAUKA AUKERA EZIN HOBEA

Asteah Ive Abesimoc margolari kroaziarrak bisitatu gaitu. Ivek azaldu digunez, Kroazian hainbat ikasle Bilbon izango dira egunotan, eta euren margolanak saltzea dute helburu. Esan digunez, estilo guztietako lanak dituzte. Eta baita margolari ezagunen kopia ere: Van Goghenak, Picassorenak, Gustav Klinte-

nak, Monetenak... Horrez gainera, margolan abstraktuak ere saltzen dituzte. Martitzenean izan zen Ive Abesimoc Arrasaten. Egunotan Bilbon izango da, baina berriro etortzeko asmoa dauka; horrenbestez, Iverekin harremanetan jarri gura duenak 686 87 62 25 telefonora deitu baino ez du. Esan digunez, margolan asko saltzen dituzte.



190 LAGUN PERRETXIKO LEHIAKETAN ESKU HARTZEN

Arizmendikoek joan den domekan egin zuten XIV. perretxiko lehiaketa, eta guztira 190 gaztetxo eta gurasok hartu zuten esku. Horretarako, egubakoitzean, San Viator Txikiko eta Ferixalekuko ikasleak mendira joan ziren irakasleekin batera. San Viator Handiko ikasleek, berriz, zapatua aprobetxatu zuten mendira joateko. Perretxiko sorta onenaren saria Phalloide taldearendako izan zen, eta aurkezpen onenaren saria Udala taldeak eskuratu zuen.

OSOKO BILKURA/ Besteak beste, Eskualdeko Ospitalea eta zergak landu zituen udalbatzarrak

Ospitaleari handitzeko baimena eman dioten arren, ospitale berria egitea eskatuko dute

UBANE MADERA

Batez ere, Eskualdeko Ospitalea izan zuen berbagai udalbatzarrak asteleheneko bilkuran. Gai horren gainean sortu zen eta zinegotzien arteko eztabaida. Edozelan ere, bestelako gaiak ere landu zituzten, datorren urteko zergak, esaterako. %3,5 igoko dituzte.

Egitamu Orokorrekin lotutako puntua dela eta hasi zuten eztabaida zinegotziek. Egitamuari egindako zenbait alegazioen gainean erabaki behar zuten. Eta alegazioetako batek ospitaleari handitzeko lanak egiteko baimena ematea eskatzen zuten. Hain zuzen ere, horrek piztu zuen zinegotzien arteko eztabaida.

KALITATE HOBEA

PSE-EEren izenean, Paco Garcia zein Blanca Roncalek argi utzi zuten sozialistek ez dutela Egitamu Orokorra onartuko harik eta ospitalearekin lotutako gaiari oraingoa ez den beste tratamendu bat ematen dioten arte. Bestetan esan duten moduan, ibarrrak ospitale berria merezi duela uste du alderdi sozialistak. Batez ere orain, Lagun Aroko 14.000 erabiltzailek baino gehiagok Eskualdeko Ospitaleko erabiltzaile izan behar dutenean. Besteak beste, alderdi sozialistak esan zuen Osakidetzak gure ibarriari ematen dion osasun kalitatea ez dela Gipuzkoako bestelako gunetan ematen duen bera; Mendaroko eta Zumarragako ospitaleak ipini zituen adibide moduan. Horren harira, eta ospitalearen kalitatea hobetzeko bidearen barruan, Blanca Roncalek aipatu zuen egokiena litzatekeela epe luzera gaixo bakoitzak gela bat izatea ospitalean, Valentzian duten moduan. Bestalde, ospitalearen gaur egungo kokalekua ere ez zaio batere egokia iruditzen alderdi sozialistari, gune industrial delako. Era berean, ospitale berriarekin batera, haren inguruan egituratutako zerbitzu berriak (kafetegiak, aparkalekuak...) ere behar direla esan zuten. Hori guztiori emendakin moduan aurkeztu zuen PSE-EEK.

PPren izenean, Itziar Lamarainek bat egin zuen PSE-EEren eskaerarekin. Gaineratu zuen ibarrierako ospitale berria lortzeko Arrasateko alderdi politiko guztiek batera presionatu beharko luketela Legebiltzarrean.

Inazio Lakuntza alkateak, berriz, erantzun zuen eurak ere ospitale berria egitearen alde daudela, eta horren alde borrokatuko direla; baina era berean, bestelako estrategiak erabiltzen dituztela.

Hala, emendakina bozkatzeko orduan, PSE-EEK eta PPK emen-



Zenbait udal langilek negoziatutako lan hitzarmenaren aldeko protestarekin segitzen dutela erakutsi zuten osoko batzarrean.

Udalbatzarrak onartu egin du ospitaleak handitzeko egin duen eskaera

Onartu zuen, baita ere, PSE-EEren mozioa, Osakidetzari ospitale berria eskatzeko

Zergetan dauden salbuespenen artean, zabor-tasa %20 igoko da datorren urtean

dakinaren alde bozkatu zuten, Aralar abstenitu egin zen eta gainerakoek kontra bozkatu zuten. Horrenbestez, ez zuten onartu.

MOZIOA ONARTUTA

Edozelan ere, gai horrekin lotuta alderdi sozialistak mozio bat ere aurkeztu zuen. Bi puntu zituen

mozioak: Osakidetzari eskatzea Arrasaten ospitale berria egiteko, oraingoa ez den leku batean; eta Udalak Osakidetzarekin adostea

Zergen igoera eta salbuespenak

Orokorrean, %3,5 igoko dira zergak 2005ean. Baina salbuespenak ere izango dira, eta horien artean honako hauek dira nabarmenenak:

- Jarduera ekonomikoek %7ko igoera.

- Ibilgailuei igoera orokorra ezarriko zaie; motoei, berriz, 2,2ko koefizientea aplikatuko zaie. Era berean, hobariak aplikatuko dizkiete zailtasunak dituztenei; eta 25 urtetik gorako ibilgailuen jabeei.

- Eraikuntzarekin lotutako zergetan ez dute igoerarik aplikatuko. Eta baserrietan lanak eginez gero, %90eko eta %50eko hobariak izango dira; Bizigune egitasmoaren barruko proiektuendako, berriz, %50eko hobaria izango da.

- Zaborrak: izango den aldaketetako bat da hemendik aurrera erreziboa hiru hilean behin kobratu beharrean, sei hilean behin kobratuko dutela. Hala,

etxerako zerbitzuak %20ko igoera izango du (urtean 8,6 euro gehiago, edo bestela esanda, sei hilero, 25,8 euro); saltoki eta hosteleritzako zerbitzuak %45eko igoera (urtean 49,9 euroko igoera izango dute bi langileko enpresek). Eta industria jarduerak %90eko igoera, (398,24 euro gehiago urtean, 5-15 laguneko enpresetan).

- Ur-tasan: lau laguneko familia batek 10 euro gehiago ordaindu beharko du hiru hilero (21 eurotik 31 eurora igoko da). Berriz, bost lagunetatik hasi eta bederthi lagunetara arteko familiek, ez dute igoerarik izango eta hortik gorakoek orain arte baino 17 euro gutxiago ordainduko dute hiru hilero.

Bestelako salbuespenen artean, berriz, aipagarria da, adibidez, hilerriko zerbitzuak, oro har, %3,5eko garestituko direla, baina, erraustegia gehiago garestituko da petrolioaren garestitzearen eraginez.

ospitale berria kokatzeko beharrezko lursailak emateko arauak. Udalbatzarrak aho batez onartu zuen mozioa.

GUZTIAK OSPITALE BERRIAREN ALDE

Laburbilduz, ospitaleari dagokionez, Arrasateko alderdi politiko guztiak daude ospitale berriaren alde; orain kontua zera da: Osakidetzak baimena eskatu duela orain dagoen ospitalea handitzeko; eta asteleheneko batzarrean baimena ematea onartu zuten. EAJ, EA, EB eta Aralar alderdiek bozkatu zuten alde. Eta kontra PSE-EEK eta PPK. Biok diote ospitaleari handitzeko baimena emanaz gero, horixe egingo duela Osakidetzak: zaharra handitu; eta ez duela ospitale berririk egingo.

ONARTUTAKO ALDAKETAK


Bestalde, ospitalearekin lotutako alegazioaz gain, bestelakoak ere onartu zituen udalbatzarrak. Horien arabera, besteak beste, etxebizitza gehiago eraikiko dituzte Arrasateko zenbait gunetan: Uruburu inguruan 40 etxebizitza eraiki beharrean, 74 eraikiko dituzte. Dentsitate txikiko etxebizitzak izango dira. Agerren, halako 28 etxebizitza egin beharrean 46 egingo dituzte. Gesalibarren, berriz, guztira 25 etxebizitza egingo dituzte. Eta San Andres-Bedoñabe gunean 220 etxebizitza berri egitea zehaztu dute; horietatik 66, babes ofizialekoak. Akisoalden 38 etxebizitza libre eraikiko dituzte eta 58 babes ofizialekoak. Bestalde, behin betiko zehaztu dute Etxe Txikietako bat ere ez dutela eraitsiko. Eta bestelakoan artean, esaterako, Bizkaia etorbidean aurreikusitako aparkaleku kopurua hasierakoa baino handiagoa izango da. Eta Emaldi, Zabaleta eta Ibarreta baserriak gune ez hiriragarrri moduan sailkatu dituzte.

Orain, egitamuari egindako aldaketa horiek jendaurrean ipini dituzte, gura duenak aztertzeko eta ados egon ezean alegazioak aurkezteko.

AZOKA TXIKIA ETA ORDENANTZAK

Bestalde, eta lehen aipatutako moduan, egitamuaz gain bestelako gaiak ere landu zituen udalbatzarrak. Tartean, onartu zuen azokako saltoki bereziak eguztzen eta egubakoitzerako egun bietarako esleitu beharrean, aukera izatea banakako egunetarako esleitzeko.

Datorren urteko zergei dagokionez, Ogasun Sailak proposatutakoa onartu egin zuen udalbatzarrak aho batez. Horren arabera, datorren urtean, oro har, %3,5 gehiago ordaindu beharko ditzuten udal tasak. Baina salbuespenak ere izango dira. Adibidez, zaborrean zerbitzuarengatik %20 gehiago ordaindu beharko da, Mankomunitateak hala proposatuta.



U.M.

Azaroaren 8an hasiko dira Monterrongo zuhaitzak botatzen; guztia bukatu arte ez dute parkea berriro zabalduko.

INGURUMENA/ Laster hasiko dira Monterron parkeko zuhaitzak botatzen

Monterron itxita izango da hilabetez, lanengatik

UBANE MADERA

Joan den asteko haize gogorak zirela-eta Monterron parkea itxi egin zuten, zuhaitzen bat jausteko arriskua handia zelako. Eta Udaletik jakinarazi digute parkea ez dutela berriro zabalduko, hariak eta zuhaitzak botatzeko lanak bukatzen dituzten arte.

Aurreikusitakoaren arabera, azaroaren 2an hasi behar ziren Monterrongo zuhaitzak botatzeko

lanak egiten. Baina astebeteko atzerapenarekin dabiltza eta azaroaren 8an hasiko direla jakinarazi digute Udaleko Garapen Estrategikoko Saitetik.

Edozelan ere, parkea dagoneko itxita dago. Hara ezin da inor sartu eta ezin da, ezta ere, Monterron zeharkatzen duen oinezkoen pasabidea erabili. Joan den astean itxi zuten parkea, haize gogorren eraginez, eta parkeak itxita segituko du zuhaitzak botatzeko lanak bukatu arte: azaroaren erdialdera edo bukaerara arte,

hain zuzen ere. 36 bat zuhaitz bota behar dituzte Monterron parkean.

BOTA OSTEAN, ZER LANDATU IKUSI BEHAR
Zuhaitzak botatzeko lanak bukatu eta gero, berriro zabalduko dute parkea. Baina oraindik ere lan gehiago egingo dituzte. Bate-tik, erabaki beharko dute zuhaitzak bota ostean zer landatuko duten parkean. Bestetik, erabaki beharko dute parkeari zein erabilera eman behar zaion hemendik aurrera. Hori guztiori erabakitzeko azterketa egingo dute.



Apartheid politikoa salatzeke ekimena

Herri Anitza taldeak beste behin salatu du taldea legez kanpo utzi izana. Horretarako kale agerraldia egin zuten astelehenean Herriko Plazan. Besteak beste, salatu zuten Arrasateko Udaletxeko agintariak ez dutela inolako harremanik 2.790 boto lortu zituen Herri Anitza taldearekin. Eta aurrerantzean egoera hori salatzen jarraitzeko asmoa dutela ere esan zuten.

Udalaren dirulaguntzen berritutako programa abiarazi dute

U.M.

Dirulaguntzak emateko programa onartu du oraingo astean Tokiko Gobernu Batzarrak. Programa orokorraren barruan, ia beste 20 programa onartu dituzte, Udalaren sailen arabera banatuta. Laster jakinaraziko dituzte oinarriak. Onartutakoa buletinera bidaliko dute orain.

Aurten, 2004an, dirulaguntzak direla-eta, Arrasateko Udalak erabaki berria hartu du: Udalak ematen duen laguntzetan garrantzitasuna, objetibotasuna, berdintasuna, diskriminazio eza, baliabide publikoen efikazia, efizientzia eta publikitate bermatzeko dirulaguntzen gaineko araudi berria onartzea.

Hala, aurten lehenengo aldiz aplikatuko dute araudi berri hori. Eta lehenengo eta behin egin dutena da zehaztea zein jarduerengatik emango dituzten

dirulaguntzak. Sailka banatu dituzte jarduerok. Lau sail dira guztira. Eta sail bakoitzean, dirulaguntza jakinendako programa espezifikoak onartu dituzte.

KULTURA ETA EUSKARA SAILA

Zortzi programa onartu dituzte Kultura eta Euskara Bultzatzeko Sailean: erakunde kulturalen laguntzeko; euskaltegiarako; enpresen edo saltokien errotilazioa edo web orria euskartzeko; euskara ikasteko euskaltegi edo akademia pribatuendako; euskara bultzatzen duten elkarteendako; araututako hezkuntzan irabazi asmo bariko ikastetxeen programendako; araututako hezkuntzan irabazi asmo bariko ikastetxeetan ikasleen gurasoek egiten dituzten ekimenendako; irabazi asmo bariko pertsonen edo elkarteek hezkuntzarekin edo eskola-kirolarekin lotuta egiten dituzten ekimenendako.

GIZARTE SAILA

Beste zortzi programa onartu dituzte Gizarte Sailean: erretiratu elkarteendako; kartzeletan dauden preso senitarteendako; baliabide ekonomiko urriak dituztenei udal-tasenean ordaintzen laguntzeko; garapenaren alde lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeendako; ekintza sozialarekin lotutako ekimenak egiten dituztenendako; gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko ekimenak egiten dituztenendako; gazte elkarteendako eta herriko musika taldeek grabazioak egiteko.

GARAPEN ESTRATEGIKOA ETA AUKEA

Garapen Estrategikorako Sailean, ingurumenarekin lotutako ekimenak egiteko laguntzen programa onartu dute. Eta AUKEAK pare bat programa onartu ditu: Arrasateko kirol elkarteendako; eta kirol elkarteek egiten dituzten ekimen puntualendako.



ARRASATEKO UDALA



AITOR LIZARRALDE

Argiderren eta Keixi-ren aurpegia ikusi baino ez dago joan den asteko derbia nolako izan zen laburtzeko (0-0).

FUTBOLA

Arrasateko futbol taldearen erronka: Zestoako zelai petralean gola egitea

Azkeneko bi norgehiagoketan Arrasateko futbol taldeak ez du golik egin

XABIER URZELAI

Mondrak batere gustuko ez duen Zestoaren zelaietan jokatu du zapatuan (16:00etan). Arrasatearrek ondo ezagutzen dute zestoarren futbol zelaia, eta badakite han gaitza dela hiru pase jarraian egitea.

Aurtengo denboraldian Zarautzek (0-3) eta Aretxabaletak (2-3) ondo asmatu dute Zestoaren zelaietan nola jokatu behar den erabakitzerakoan. Bi talde horiek dira zestoarren etxean irabazteko gauza izan diren bakarrak. Eta

Realaren harrobiko talde UPVK, adibidez, ez zuen hareazko futbol zelai txiki horretan irabazterik lortu. Realeko gaztetxoek ondo dakite futbolearen egitea, baina Zestoan irabazteko hori baino askoz ere gehiago behar da.

Jakin beharreko guztiak, baina, ondo baino hobeto dakizkete bai Josu Zubiak eta baita bere mutilek ere. Ez da izango lehenengo aldia Zestoan jokatzeko dutena, eta badakite zestoarren etxean galtzea garesti saltzen dutela.

GOLA FALTAN

Mondrak ez ditu gura beste gol egiten, eta azken bi jardunaldie-

tan geratu da hori agerian, talde zuri-moreak gol bakarra ere ez du egin. Orain artekoa ikusita, bi talde baino ez daude Mondrak baino gol gutxiago egin dituztenak (8 gol): Anaitasuna eta Bergara. Egia da, baina, beste bost talde daudela gol kopuru horrekin. Eta egia da baita ere Mondra ez dela gol gehien jaso duen taldea (9 gol).

Baina ez da gezurra Arrasateko taldea 17. postuan dagoela, norgehiagoka bakarra irabazi duela eta hori bigarren jardunaldian izan zela. Eta aurten larri ez ibiltzeko irabazten has-teko ordua ere badela.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - HLB 108	2-5
Irati - Betraye	5-7
Billy & The Cowboys - Manhattan Pippol	6-1
AT Celaya - Dribling	4-2
Goma2 - Ekipo Aldeano	3-2
You Know! - La Kuadrilla	7-2
Torpedo Musakola - Lasagabaster	3-6
Tomahawk - AC Surcos	1-3
Fuxion - Iriztu	1-2
Saukelu Scream	Deskantsua

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	4	2
2. HLB 108	4	2
3. Betraye	4	2
4. AC Surcos	4	2
5. Goma2	4	2
6. Irati	2	2
7. La Kuadrilla	2	2
8. Billy & The Cowboys	2	2
9. Lasagabaster	2	2
10. AT Celaya	2	2
11. Saukelu Scream	2	1
12. Iriztu	2	1
13. Torpedo Musakola	1	2
14. Ekipo Aldeano	1	2
15. Fuxion	0	2
16. Tomahawk	0	2
17. Dribling	0	2
18. Abokajarro	0	2
19. Manhattan Pippol	0	2



ZUBIA DELA-ETA, DESKANTSUA

DATORREN ASTEBURUAN JOKATUKO DUTE HIRUGARREN JARDUNALDIA

Oraingo asteburuko jardunaldiari dagokionez, konturatuko zineten ez dugula ordu-tegirik jarri, oraingo asteburuan deskantsua izango da-eta. Argi dago horrelako zubietan partidua jarriz gero, talde askok norgehiagoka atzeratzea eskatuko luketela, eta antolatzaileek uste dute hobe dela jardunaldirik ez jartzea, zoratzea izango litzateke, bestela. Eta, joan den asteko norgehiagoketako dagokionez, aipatzekoa da eta aldi berean txalotzeko antolatzaileek ez dutela inor zigortu, horretarako motiborik egon ez delako. Ea ez den asteburu bateko kontua.

ORDAINDU EZ DUTENEK HOBE DUTE ARGI IBILI

Antolatzaileek txapelketan parte hartzeagatik ordaindu ez duten hiru taldeen izenak eman gura ez badituzte ere (oraingoz ez, behintzat), argi utzi dute talde horiek azaroaren 8a baino lehen ordaindu beharko dutela, bestela zigorra izango dute. Kontu hori ez da berria, antolatzaileak urtero ibiltzen dira-eta berdin. Talde bat baino gehiago diru barik joaten da Monterronerá izena ematera, eta gero gerokoak. Jakin, hortaz, azaroaren 8rako ordaintzen ez duen taldeak bi puntu gutxiago izango dituela. Penagarria izango litzateke kantxan lortutakoa ez ordaintzeagatik galtzea.

MENDIA

Gipuzkoako Birako etapa Aritxulegi eta Hondarribia artean

Azaroaren 9an egingo dute Besaidekoek Gipuzkoako Birako beste etapa bat. Etapa horretan, mendizaleek Aritxulegitik (Oiarzun eta Lesaka artean) Hondarribiaraino joan beharko dute. Mendi zeharkaldia egiteko lau ordu inguru beharko dituzte, baina antolatzaileek oraindik ez dute erabaki eguerdian edo arratsaldean itzuliko diren. Izena eman gura duenak azaroaren 2an, 3an edo 4an joan beharko du Besaiden egoitzara, 19:30etik 20:30era arte. Horrez gain, Besaidekoak Ordizian izango dira domekan, beteranoen martxan.

XAKEA

Arrasate Hiria Txapelketako azken jardunaldia, gaur

Arrasate Hiriko azken jardunaldia jokatu dute gaur arratsaldean Altamirako lokalean. Azken orduko ezustetik egoten ez bada, Rodney Perez kubatarrak irabaziko du txapelketa, hura dago-eta sailkapenaren lehenengo postuan. Gaur, Gastañares xakelariaren kontra irabazten badu, berea izango da txapela, eta taulak egiten baditu ere irabazteko aukera handiak izango ditu. Gastañaresek, baina, daukan guztia emango du, kubatarrari irabazita txapelketa irabaziko luke-eta. Emozioa izango da azken unera arte.

ESKUBALOIA

Defentsan hobetuz gero, talde sendoa da AGR Arrasate

Jokatutako hiru partiduetan irabazi ditu AGR Arrasatek, eta domekan laugarren garai-penaren bila kantxaratuko dira Andoni Arandoren mutilak. Iturripen izango dute norgehiagoka, Hondarribiren kontra: "Taldea gaztea da, ondo jokatzeko dakitenak. Orain arte emaitza onak lortu ditugu, baina badugu zertan hobetu, defentsan batez ere. Domekako partiduari dagokionez, irabazteko ondo jokatu beharko dugu, eta hala ere alde txikia izango da markagailuan", aurreratu digu taldeko entrenatzaile Andoni Arandok.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

- Zestoa - Mondra**
Preferentea. Zapatuan. 16:00. Zestoa.
- Mondra - Hondarribia**
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
- San Ignacio - Arrasate**
Gazteak. Zapatuan. 11:00. Donostian.
- Arrasate CD - Eibar B**
Ohor. Kadete. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen.
- Amaikak Bat - Arrasate**
Infantilak. Domekan. 15:00. Zumaian.
- Mondra - Almen Aretxabaleta**
Emakumeak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.

SASKIBALOIA

- Mugarri Alkesa Arrasate - Legarcia**
Lehen Maila. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

ERRUGBIA

- Atletico San Sebastian - Arrasate**
Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Donostian.

ESKUBALOIA

- AGR Arrasate - Hondarribi**
Lehen Territ. Domekan. 11:00. Iturripen.
- Arrasate - Aloña (Atzeratutako part.)**
Big. Territ. Egubakoitzean. 19:00. Musakolan.
- Donibane - Arrasate**
Big. Territ. Domekan. 10:30. Donibanen.
- Ereintza - Arrasate**
Gazteak Neskak. Zapatuan. 16:30. Erreterian.

PILOTA (GIPUZKOAKO TXAPELKETA)

- Urretxu - Arrasate**
Gazteak. Egubakoitzean. 19:00. Urretxun.
- Añorga - Arrasate**
Seniorrak. Domekan. 12:00. Añorgan.

EMAITZAK

- ERRUGBIA**
Seniorrak. Arrasate - EHU Bilbo 13-20
- PILOTA**
Seniorrak. Lazkano - Azaguirre 14-22
- SASKIBALOIA**
Seniorrak. Getxo - Mugarri Alkesa 80-69

KIROL TOPAKETA

Kirol topaketaren helburua: lehengo jolasak errekuperatu eta kalean jolastea

Arrasateko Mesedeetako Amako eta Bergarako Arantzadi eta Mariaren Lagundiko ehun ikasle inguruk hartu zuten esku eguaztenean kirol topaketan

XABIER URZELAI

Ikaspiletako antolatuta, Arrasateko eta Bergarako DBH 4. mailako ikasleek kirol topaketa egin zuten eguazten goizean. Topaketa hori Jokin Zaitegi plazan egin gura zuten, baina eguraldiak ez zuen lagundu, eta Musakolako kiroldegira joatea erabaki zuten.

Kiroldegiko pilotalekuan, berriz, ez zuten inongo arazorik izan kirol topaketako jolasak egiteko. 08:30ean hasita, ehun ikasle inguruk garai bateko euskal kirol eta jolasekin gozatu ahal izan zuten, hori zen-eta topaketaren helburuetako bat. Kirol topaketako antolatzaile Manex Beristainek azaldu digunez, gazteak gero eta gutxiago jolasten dira kalean, eta ohitura hori errekuperatu gura dute: "Gaur egungo gazteek denbora luzea egiten dute ordenagailuaren aurrean, eta gero eta gutxiago jokatzen dute lagun artean. Guk kalean jolasteko ohitura errekuperatu gura

dugu, eta hemengo jolasak egiten badituzte, hobeto".

OSO HARRERA ONA

Adin horretako gazteak motibaztea gaitza bada ere, Manexek balorazio positiboa egin du: "Hasieran uste dute umeendako jolasak direla, baina apur bat zirikatu eta gero arreta handia jartzen dute, eta umeak baino askoz ere hobeto ibiltzen dira".

Kirol eta jolasei dagokienez, besteak beste, lokotx batze lasterketa, ziba, giza proba, sokatira, arrauna, ingudea eta artzain txakur jokoa egin zituzten, baina jolas batzuek beste batzuek baino harrera hobea izan zuten: "Ziba-rekin, adibidez, oso ondo ibili ziren, eta jolas sinplea bada ere, atentzio handia jarri zuten. Horrez gain, lokotx batze lasterketa taldeka egin genuen, eta 24 lagun ibili ziren aldi berean proban esku hartzen; ikusgarria izan zen".

Hurrengo kirol topaketa Eskoriatzan egingo dute, eta martxo inguruan itzuliko dira berriro ere Arrasatera.



XABIER URZELAI

Ziba jokoak izan zuen arrakasta handien: "Jolas sinplea bada ere, ikasleak gustura ibili ziren", esan digu Manex Beristainek.

Lehenengo minutuak asko zaindu behar ditu Mugarri Alkesak

X.U.

Bihar, (18:00etan Iturripen) Mugarri Alkesa Saskibaloitaldeak ezin du barkatu Lizarrako Legarzia talde nafarraren kontra. Arrasatekoek beharrezko dute denboraldiko bigarren garaipena lortzea, eta biharko kontrarioa ez da Mugarri Alkesa baino talde hobea.

Legarzia Promociones taldea azkena da sailkapenean, baina Mugarri Alkesak baino norgehiagoka bat gutxiago jokatu du. Nafarrek norgehiagoka bakarra irabazi dute, eta gainontzeko hirurak galdu. Mugarri Alkesari dagokionez, Gorka Zurutuza-ren mutilek orain dela bi aste lortu zuten denboraldiko lehen garaipena, eta joan den astean Getxo baino gutxiago izan ez baziren ere, arrasatearrak esku hutsik itzuli ziren Faduratik.

Alde horretatik, biharko kontrarioa Mugarri Alkesa baino indartsuago ez bada ere, arrasatearrek tentsioarekin hasi behar dute norgehiagoka, eta baita laurden bakoitzeko hasierako minutuak ere. Joan den astean loak hartuta kantxaratu ziren Getxon, eta, horretaz baliatuta,



ARRASATE PRESS

Caja Rural Ardoi talde nafarra da lehenengo mailako liderra.

bizkaitarrak 0-15 aurreratu ziren markagailuan. Esan gabe doa, norgehiagoka horrela hasita gaitza dela markagailuari buelta ematea.

LAURDEN HASIERAN ERE, KONTUZ

Partiduaren lehenengo minutuak ez dira, baina, zaindu beharreko bakarrak. Orain dela bi aste, hirugarren laurdena hastearekin bate-

ra egin zuten arrasatearrek behera; eta gero, norgehiagoka irabazi ahal izateko lan bikoitza egin behar izaten dute. Orokorrean, baina, Mugarri Alkesak dakien moduan jokatzen duenean maila oneko taldea dela erakutsi du, baina erregularrago izan behar dute.

Horretan ahaleginduko dira bihar arratsaldean, jarraitzaileek lagunduta.

FOTOKIROLA



Errugbian, kontrario gogorra asteburuan

Arrasate Errugbi Taldekoek kontrario gogorra izango dute asteburuan, hirugarren postuan dagoen Atletico San Sebastianen zelaian jokatu beharko dute-eta. Donostiarrak ondo jokatzen dabilta, eta joan den astean Santanderko Independienteren kontra lortutako garaipenak (0-48) on egingo zien. Mondragoetarrek etxean jokatu dituzte azken bi norgehiagokak, baina puntu bakarra eskuratu dute. Puntu horrekin, azkenaurreko postuan daude sailkapenean. Zarautz da sailkapenean azkena. /X.U.

ELKARRIZKETA

JUAN MONTIANO/IDAZLEA

“Zoriontsua naiz irakurle fidel batzuk ditudalako; izan ere, hori asko da”

IKER BARANDIARAN

Juan Montiano idazle arrasatearrak *Los vagabundos* izeneko hirugarren eleberrira aurkeztu du. Montiano urte asko daramatza idazten. Haren lanek eleberritza beltzaren eta genero fantastikoaren elementuak izaten dituzte.

Noiz hasi zinen idazten?

Txikitan idazten nuen apur bat, baina ez askorik. Gaztetan ipuinak idazten hasi nintzen, eta 1995ean erabaki nuen eleberrira idaztea. Familian ez dago beste idazlerik, baina aitak irakurtzeko zaletasun handia zuen eta batzuetan poesia irakurtzen zidan: Lorca, Machado... Badaukat aitarekin bizi izandako pasarte bitxi bat: umetan lehoiaren bizitzaren gaineko marrazki eta idatzi batzuk egin nituen. Nik jakin barik, aitak orri horiek hartu eta liburu txiki antzeko bat osatu zuen. Ilusio handia egin zidan, eta oraindik gordeta daukat. Uste dut gauza txiki horiek azterna utzi zutela nire barruan.

Zer-nolako idatziak egiten dituzu?

Nire lanek, batez ere, eleberritza beltzaren eta genero fantastikoaren elementuak izaten dituzte. Inspirazio iturri handia komikietatik eta filmetatik daukat. Gaur egun, ez dut ia komikirik irakurtzen, baina gaztetxotan *La Masa*, *Los cuatro fantásticos*, eta abar nituen gustukoak. Horrez gain, ahal dudanean, filmak ikusten ditut.

Liburuak atera aurretik, zer egiten zenuen idatziekin?


Idatzitako ipuin gehienak nik neuk gorde ditut. Horieta batzuk lehiaketetara bidali ditut. Esaterako, 1988an, Kutxak idazle askoren ipuin bilduma kaleratu zuen, nireak barne.

Lehiaketek balio dute ondo edo txarto idazten duzun jakiteko, ezta?

Batzuetan bai, baina askotan ez dago hori jakiterik. Nire ustez udalek eta bestelako erakundeek antolatzen dituzten lehiaketa txikiak sinesgarrienak dira. Bestalde, lehiaketa handietako asko ez dira fidatzekoak. Atzean interes handiak egoten dira, eta, zoritxarrez, gehienetan betiko berek irabazten dute.

Beraz, literaturan aditzera ematen hastea oso zaila izango da...

Bai, oso zaila da. Argitaratzaileak idazlea berria denean asko arriskatu du, idazlea ezezaguna bada oso gutxi salduko duelako. Horregatik, argitaratzaile askok ez dute arriskatu



IKER BARANDIARAN

“Garatutako pertsonaia batzuk eleberrietan errepikatzea tresna garrantzitsua da”

gura izaten. Liburuak argitaratzen jarraitzeko aukera ematen dizun irakurle-koltxoia izatea oso gaitza da. Espainiako Estatuan idazle gehientsuenek beste lanbide bat daukate.

Inoiz amestu duzu literaturatik bizi izatea?

Ez. Idaztea oso gustuko dut, baina ez dut lanbidez aldatu gura. Peditra izateko asko ikasi dut, eta oso gustuko dut lan hori, asko betetzen nau. Lanbide horrekin aukera daukat idazten jarraitzeko, eta pozik nago. Badakit proposena dela idazteari bakarrik eustea, baina ez dut pauso hori eman gura. Zoriontsua naiz irakurle fidel batzuk ditudalako eta herrian harrera ona egiten didatelako.

“Bigarren eleberria, ‘Zaino’, alemanera itzuli zuten, eta izugarri poztu ninduen”

Zer ematen dizu idazteak?

Lehenik eta behin, oso gustuko dut idaztea. Literatura sortzea bat egitea oso dibertigarria da, ideia bururatzen zaizunetik, istorioa zelan garatzen duzun eta bukatu arte. Horrez gain, idatzitakoa argitaratzeak poztu egiten zaitu; norbaitek zuk egindakoa gustuko duela jakitea eta zure aldeko apustua egitea.

Erratuta ez banabil, orain argitaratu duzun *Los vagabundos* liburuaz gain, beste bi liburu ere badituzu kalean...

Bai, 1995ean *El cadaver de porqueriza* eleberria argitaratu nuen. Istorioa Soriako herritxo baten gertatzen da. Erraustutako hilotz bat aurkituko dute. Polizia bati eskatuko diote krimena konpon-

tzeko, baina polizia horri ez dio axola zein den hiltzailea. Horren ordez, jakin gura izango du hildakoa zein den.

Liburu horren azala zuk zeuk egindakoa margolana da. Oraindik margotzen duzu?

Gaztetan margotzeko zaletasun handia neukan, baina aspaldian ez dut askorik margotu. Aitak asko margotzen zuen, eta hark erakutsi zidan. Asmoa daukat inoiz margotzen jarraitzeko, baina gurago dut idaztea.

Bitxikeria moduan, *Los vagabundos* liburuaren azalean ere esku hartu dut. Argitaratzaileak ume baten irudia bidali zidan. Zerbait falta zitzaioela eta, tximista bat marraztu nuen umearen alboan.

Granadako argitaletxe batekin bigarren liburu argitaratu zenuen...

Bai, *Zaino* izena du. Lehengo liburuko poliziak esku hartzen du eleberritza horretan. Madril ondoko herri baten, emakume batek uste du hiltzaile anizkoitz bat dagoela, eta horrek adarka hiltzen duela. Eleberritza hori alemanera itzuli zuten, Andaluzian atzeritar asko egoten direlako. Kontua da alemanezkoa gaztelaniazkoa beste saldu zela. Nire idatziak beste hizkuntza batera itzultzeak asko poztu ninduen.

Eta *Los vagabundos* eleberrian pertsonaia antzekoak esku hartzen dute?

Pertsonaia berri batzuk asmatu ditut, baina badaude nire lanean klasiko diren protagonista batzuk ere bai. Uste dut idazten dugun guztioi gustatzen zaigula literatura mundu txiki bat sortzea. Oso tresna garrantzitsua da garatuta dituzun pertsonaia batzuk esku artean izatea; joko handia ematen dizute. Gainera, idazle bat jarraitzen duten idazleek eskertu egiten dute hori.

Zertan datza azkeneko eleberria?

Gizon bati apendizitis ebatzuntza egin diote eta etxean bakarrik egon beharra dauka. Internet bidez eleberritza bat erosi du eta kapituluak jasoko du. Eleberritza horretako kapitulu guztiak eskaleen gainekoak dira, eta jasotzen dituen egunean irakurri behar ditu derrigorrez. Azkeneko kapituluak beste guztiak ulertuko ditu, eta istorioan esku hartuko du. Eleberritza kontatutako istorioak herrialde askotan gertatzen dira. 1998 eta 1999 artean idatzi nuen.

Asko borrokatu behar da liburu bat argitaratzeko?

Borrokatu baino gehiago gainera egon behar duzu, eta ez duzu inongo aukerarik galdu behar. Zorte handia izan dut.

KULTURAPILULAK

**‘Kill Bill 2’, drama bat eta Japoniako film bat**

Asteburu honetan bi film emango dituzte: Tarantino-ren *Kill Bill 2*, helduendako; eta *Zafarrancho en el rancho*, gaztetxoendako.

Gaur, egubakoitza, domekan eta astelehenean, *Kill Bill 2* emango dute. *Kill Bill* Tarantino-ren (*Reservoir dogs*, *Pulp Fiction*...) azkeneko filma da, eta bi zati ditu. Asteburu bigarrena emango dute. Akziozko film horrek 136 minutu irauten du. *Ezkongaiak* O-Ren Ishii eta Vernita Green erail ondoren, Budd eta Elle Driver asasinatu behar dituzte, Bill harrapatu eta mendekua egin ahal izateko.

Protagonistak honako hauek dira: Uma Thurman (*Pulp Fiction*, *Acordes y desencuerdos*...), Daryl Hannah (*Conflicto de intereses*, *Un paseo para recordar*...) eta beste batzuk.

Domekan eta astelehenean, umeendako, *Zafarrancho en el rancho* animaziozko filma emango dute. 76 minutu irauten du, eta Will Finnem zuzendu du.

Datorren egunean, azaroaren 4an, *Zatoichi* drama emango dute. 116 minutu irauten du, eta Takeshi Kitano (*Hana-Bi*, *El verano de Kikujiro*, *Dolls*...) maisuak zuzendu du. XIX. mendeko Japonian dago kokatuta istorioa.

Azaroan egingo du emanaldia Lore Gazteak taldeak

Azkeneko urteotan, Lore Gazteak dantza taldeak uztailan dantza ikuskizuna egin ohi du Monterron parkean. Dantzari batzuen ikasturte bukatu izaten da, eta herritar asko hurreratzeko dira horien trebeziak ikustera. Baina, aurtengo uztailan, hainbat arazooren eraginez, emanaldia bertan behera utzi behar izan zuten.

Asteon dantza taldeko arduradunek iragarri dute Udaleko Kultura Sailarekin beste egun bat adostu dutela eta ikuskizun hori azaroaren 21ean egingo dutela. Hala ere, Monterronen egin beharrean, Amaia Udal Antzokian izango da.

Bihar, zapatua, 'Jim altxor uhar-tean' txotxongilo ikuskizuna Amaia antzokian

IKER BARANDIARAN

Aspaldiko partez, Udaleko Kultura Sailak txotxongilo ikuskizuna ekarriko du Arrasatera. Bihar, zapatua, Gorakada taldeak *Jim altxor uhar-tean* izeneko emanaldia egingo du. 17:00etan izango da Amaia Udal Antzokian, eta adin guztietarako da.

Gorakada antzerki taldeak ibilbide luzea dauka txotxongiloen alorrean. Orain arte, besteak beste, ikuskizun hauek eskaini ditu Espainiako Estatuan: *Txanogorritxu*, *Pinotxo 2000*, *Aitonon kontuak* eta *Ahate itsusia*.

Talde horren azkeneko lana da *Jim altxor uhar-tean*. Robert Louis Stevensonek idatzi zuen liburuaren moldaketa, hain zuzen ere.

Robert Louis Stevenson narrazio-eleberrri delakoaren eta erromantzearen adierazle nagusienetakoa izan zen. Osasun ahula zuenez, bidaiatzen ibili zen etengabe, birrikako gaixotasuna dute-nendako klima mesedegarrien bila. Horregatik, lehen kontakizunak bidaia horien berri emateak izan ziren funtsean.

Klasiko unibertsal horren txotxongilo-bertsioaren aldeko apustua egin du Gorakada taldeak. Euren esanetan, 5 eta 105 urtera bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago.

JATORRIZKOAREN ESPIRITUAREKIN

Txotxongilo ikuskizunaren gidioa eta zuzendari lanak Jokin Oregik egin ditu. Harkaitz Cano idazleak lagundu dio testuak egokitzen.

Gorakada taldeak ikuskizun horren bi bertsio ditu: bata, euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Arrasaten euskarazkoa egingo dute, eta bi aktore hauek esku hartuko dute: Aritz Rodríguez eta Zigor Bilbaok, biak hala biak Barakaldoko Antzerki Ikastegiko ikasleak.

Taldeko kideen esanetan, Jokin Oregik gidioa idazteko

orduan jatorrizko lanarekiko errespetu eta fideltasun handia erakutsi du, berezko esentziari eusten saiatu da eta umeek ulertzeko modura egokitu du.

Bestalde, Jokin Oregi oso pozik dago. Izan ere, txotxongilo ikuskizun baten zuzendaritzaz arduratzen den lehenengo aldia da. Haren esanetan, oso esperientzia aberasgarria izan da lan hori egitea.

Aipatutako bi aktoreetako bakoitzak bosna pertsonaiari ahotza jarriko die ikuskizunean. Musikari dagokionez, Santiago Ramosek doinu folk eta etnikoen gainean lan egin du, istorioa kokatzen den testuinguru ingelesa islatu guran. Eta eszenografiari dagokionez, bost espazio irudikatzeke hiru modulurekin jokatuko dute.

PIRATEN GAINEN KONTAKIZUNA

John Silver pirata beldurgarria alferrik dabil Flint kapitain ospetsuaren altxorraren bila. Jim Hawkinsek altxorraren mapa aurkitu eta goleta baten horren bila joko du, baina tripulazioan Silver eta beste piratak sartuko dira eta traizioa egiten saiatuko dira. Hainbat abentura bizi izango dituzte.



Txotxongilo ikuskizunak adin guztietarako dira.

GORAKADA

BEDOÑABE HAURRESKOLA

(0-2 urte bitarteko eskola)

Matrikulazio epea zabalik!



Noiz: azaroaren 2tik 12ra

Non: Arrasateko Haurreskolan, BEDOÑABEN

(Alfontso VIII kalea, San Andres auzoa)

Tel.: 943 79 76 86



Haurreskolak

BOTEPRONTUEN

Enrike Sorzabalbere

MONDRAGON CONET

XABIER URZELAI

Irundarra izenda be, Enrike aspaldi etorri zan Mondraguera, estudiante denporan. Orduetik hona beti egin izen dau lan MCC barruen. Lehen Sistemas-en, eta oin dala lau urtetik hona Mondragon Conet-en. Enpresien eta beste gauza askon gainien egin dogu berba.

Ze lan egitten dozue Conet-en?

Conet-ek adar bi dauko: alde batetik, telekomunikaziñuen arluen datuek batetik bestera pasau ahal izetie ofreziduten dogu; eta bestetik, Internet zerbitzuek osorik ofreziduten dogu: korreue...

Enpresan, komertzialak ala informatikuek zarie gehixau?

Ba, ez dakit. Neuk komertzial lana egitten dot, baiñe argi dau informatikako gauzak ondo eza-gutu biher dotela, ze saltzen dogun jakin biher dogu-eta.

Zenbat enpresa dauz Conet-ekin konektaute?

Berrehun enpresa inguru, esango neuke. Hasieran, MCC barruen hasi gitzen lanien, baiñe haundiketari juen gare, eta gaur egun Euskal Herrixen lan haundixe egitten dogu.

Enpresekin ala partikularrekin egitten dozue lan?


Normalien enpresekin egitten dogu lan. Badaukogu kliente partikularrak, baiñe konpromisuegatik gehixenbat. Geuk ez daukogu kapazidaderik partikularrekin lan egitteko. Lan hori enpresa haundixek egitten daue.

Konpetentzia haundixe dauketzue?

Baietz esango neuke. Euskal Herrixen lau enpresa dauz geure maillan, eta gero operadore haundixek dauz, Euskaltel eta Telefonica. Geure artien ondo konponketan gare, baiñe konpetentzia haundixe dau.

Eta, Internet kolgaute geraketan dani, buruhaustiek?

Geuk atentziño pertsonalizaue ofreziduten dogu, eta arazo bakoxtari irtenbide bi emuten dutzogu; lelunguek kale egitten badau, biga-



X.U.

“MCC barruen hasi gitzen lanien, baiñe oin Euskal Herri maillan egitten dogu lan”

renakin probetako. Egixe da, baiñe, holako problemak gerueu eta gutxiau egoten diela. Hori bai, beste problema batzuk agerketan die, birusak, adibidez.

Deskonektetako leku bat?

Mendixe. Astien zihher airien ibiltten gare, hara eta hona lanien. Eta deskonektetako mendire juetie gustetan jat, orduen aterrizetan dot-eta. Alde horretatik, gaur egun gaztieker lanerako daukien filosofia gustetan jat. Ez dittue geuk egitten geuen sakrifiziuek egitten, baiñe ondo egitten daue lan, eta egin biher dan denporan, gainera. Horki aurrera, bizi egin biher da.

Ze falta jako Mondragueri?

Fibra optikue herri dani sar-

“Hip-hop musikie gustetan jat. Kultura askotan zabaldu da; asko lanketan daue ritmuek eta letrak”

rtzie. Hori egitten dauenien, lanerako aukera haundixek eukiko dogu. Bestalde, esango neuke enpresetan aurrerapen haundixek egin dauela, baiñe kulturie ez dogule horrenbeste zainketan.

Eta, ze dauko ona?

Enpresei dagokixenez, herri honek beti euki dauela gauzak egitteko kapazidadie.

Pelikula bat. Liburu bat. Musika talde bat.

Mar adentro / Mujeres que corren con los lobos. Emakumieki zuzendutako liburue da, eta oso aberasgarrixe izen da hori leitudie / Hip-hop musikie gustetan jat. Kultura askotan zabaldu da, eta asko lanketan daue ritmuek eta letrak.

NIREBIDAIAHURA / Mikel Castillo


Milanera / 2004ko irailean

Bartzelonako Arts hotolean utzi genituen joan den astean Mikel eta Eva, Mercedes autoaren promozio kanpaina baten esku hartzen: “08:00etan irten ginen hoteletik. Auto guztiak ezin ginen batera joan, horretarako baimen bereziak behar dira-eta. Horregatik, auto bakoitzak aurreikusita zeukan orduan hasi zuen bidaia”. Bartzelonatik Gironarako bidea hartu eta Port Boun egin zuten geldialdia: “Bazkaldu, berriz, mugaren beste aldean dagoen herrixka batean egin genuen, eta arratsaldean iritsi ginen Avignon-era”. Hango gaztelu batean afaldu zuten: “Lekua oso polita zen; Erdi Aroan giro-tutako afaria izan zen, baina janaria ez zitzaigun batere gustatu. Hori bai, oso ondo girotu zuten guztia: magoak, bufoiak, malabaristak...”.

Hurrengo egunean Saint Tropez-era egin zuten bidaia: “Hoteletik irten, eta goizero autoa garbi-garbi eta erregaitanga beteta uzten ziguten. Saint Tropezera iritsitakoan Nikki Beach Club ezagunera eraman gintuzten. Aberatsak joaten dira hara, eta horretaz konturatzeko hango aparkalekuan zeuden autoak ikusi baino ez zegoen: Ferrariak, Aston Martinak... Kluba, berriz, ikusteko modukoa zen. Eguzkia hartzeko, esaterako, larru zuriz forratutako koltxoneta ederrak zituzten; eta bainujantzien desfilea egin ziguten”.

Klubean ederto bazkaldu eta gero, arratsaldean Monakora bidaia egin zuten: “Monakon, 1 Formulako pilotu David Coulthard-en hotelera eraman gintuzten. Atsedean hartu eta Monakoko Yacht Club delakora joan ginen afaltzera. Monakoko kirol-portuan sekulako yateak ikusi genituen, helikoptero eta guzti. Afaltzerakoan, berriz, gurekin izan ziren David Coulthard eta Amerika Kopa irabazi duen belauntziaren diseinatzailea. Jatekoari eta edatekoari zegokienez, ez zegoen mugarik. Hori bai, hurrengo goizean 08:00etan geneukan irteteko ordua; horrenbestez, zaindu egin behar”.

XABIER URZELAI



Mikel eta Eva, Monakoko Alberto printzearen belauntzian.

“Monakon, yateek helikopteroa eta guzti zeukaten”

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



GUREGAIK/ GAZTE SAILAK GRAFOLOGIA IKASTAROA ANTOLATU DU

Idazkera aztertuta, norberaren ezaugarriak nabarmenduko dituzte

ARRASATE IRRATIA/IKER BARANDIARAN

Udaleko Gazte Sailak grafologia ikastaroa antolatu du. Eguenean, azaroaren 4an, hasiko da, eta Irune Ibarra izango da irakaslea. Eguenean, 18:00etatik 20:30era egingo dute.

Udaleko Gazte Sailak, urtero, hainbat ikastaro antolatzen ditu. Aurtengo berrikuntza nagusia honako hau da: *Grafologia: nola idatzi, hala izan* izeneko eskola, hain zuzen ere. Azaroaren 4tik 25era bitartean eguenero emango dute IMiko lokaletan. Matrikula 20 euro izango da. Ikasleek eta langabeek, berriz, 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Grafologiaren gaineko oinarritzko ikastaro hori Irune Ibarra markinarrak emango du. Ibarrak eskola handia dauka arlo horretan. Berez psikologoa da eta unibertsitatean eskolak ematen ditu. Horrez gain, umeen garapenaren gaineko hainbat ikerketa egin ditu, eta umeen idazkeraren gaineko liburu bat, bideo bat eta hainbat ikerketa egin ditu orain arte.

IRAKASLE AITZINDARIA

Orain dela hamabost urte hasi zen grafologiaren gainean informazioa batzen eta ikasitakoa zabaltzen. "Orduan ez zegoen grafologiaren gainean euskarazko informaziorik. Horrek amorrua eragin zidan eta arazo horri irtenbidea ematen hasi nintzen", azpimarratu zuen Irunek.

Grafologoek eskuz idatzitako testuak aztertzen dituzte. Hain

zuzen ere, Ibarren esanetan, orri zuri baten hogeit hamar edukiz gero, eta zenbat eta dokumentu gehiago eduki, lan errazagoa eta zehatzagoa egin dezakete lagun horren nortasuna zelakoa den esateko.


Nortasuna azaltzeko orduan halako ezaugarriak bereiz ditzakete: adimen mota, borondatea, portaera... Horrek esan gura du idazkerako ezaugarri batzuk neurtuta eta aztertuta, jakin ahal dutela lagun horrek zenbaterainoko pazientzia duen, taldean lan egin gura duen edo gusturago dagoen bakarrik gauzak egiten, irudimena daukan edo nahiko arrazionala den... Hain zuzen ere, lagun horren argazki antzeko bat egiteko gai dira, haren ezaugarri nagusienekin.

Informazio hori jasotzeko, batez ere, gauza hauek aztertzen dituzte: idazkeraren neurria, presioa, abiadura edo erritmoa, hizkien arteko loturak, espazioa, idazkera okerra ote den, hizkiak...

Ibarrek adibide batzuk eman ditu: "Orri osoa betetzen duenak etengabe egingo du berba eta leku handia beharko du mugitzeko. Espazio handia hutsik uzten duena eta hizki txikiak egiten dituenak, berriz, barnerakoiagoa izan daiteke."

IKASTAROA, ADIN GUZTIETARAKO

Irakaslearen esanetan, ikastaro hori da interesa daukan edozeinendako; berdin dio zer adin duen. Oinarritzko ikastaroa da, eta hamar ordu besterik ez dute emango. Bakoitzak gura duen erabilpena emango dio ikasitakoari.



Grafologiaren bitartez ezaugarri asko batu daitezke.

Ikastaro hori adin guztietara zuzenduta dago; oinarritzkoa da eta hamar ordukoa

Idazkerako hainbat kontu aztertuta, ezaugarriekin osatutako argazki bat egin dezakete

Umeen arteko erasoen gaineko jardunaldiak antolatu ditu liburutegiak

Udal Liburutegiak umeen arteko irainen eta indarkeriaren gaineko jardunaldi batzuk antolatu ditu. Besteak beste, erakusketa ipiniko dute Monterronen eta berbaldia egingo dute.

Udal Liburutegiak *Juul; iraintzea hitzez jotzea* da izeneko erakusketa antolatu du Monterron kultura etxean. Martitzenean, azaroaren 2an, hasi eta hilaren 12ra arte iraungo du erakusketak. *Juul; iraintzea hitzez jotzea* da Gregie de Mayer-en liburuan oinarrituta dago. Liburu horren euskarazko edizioa 2000. urtean

Ikastolen Elkarteak argitaratu zuen, eta gaztelaniazkoa Loguezek. Liburuak maila berekoen arteko indarkeriaren gordintza irudikatzen du.

Koen Vnmechelenek egindako egurrezko eskulturak dira eta saio bakoitzean, begirale baten laguntzarekin, ikasleei aukera

emango zaie arazo horretaz berba egiteko eta hausnartzeko, eta baita ariketak batzuk egiteko ere.

GAIAREN GAINEAN JARDUNGO DUTE

Udal Liburutegiak eta Udalaren Hezkuntza eta Prebentzio sailek, elkarlanean, honako jarduera prestatu dute: herriko ikastetxe-

etako LMH 6. mailako bederatzi talde eta DBH 1eko hamar talde erakusketara joango dira, eta problematika horren gainean berba egingo dute.

Horiez gain, azaroaren 11n, gurasoendako saio bat egingo dute, 18:30ean. Interesa dutenak liburutegian eman beharko dute izena azaroaren 9a baino lehen. Gazte txokoetako kideek ere saio bat izango dute, azaroaren 11n, 17:30ean.

Gaurkotasan handia duen gai horretan gehiago sakontzeko, azaroaren 10ean, *Bullying, umeen arteko erasoak* berbaldia egingo du Oihana Munduate psikologoak. 18:30ean izango da, Monterronen.

Erakusketa batez baliatuz, herriko ikasle ugarik gai horren gainean hausnartuko du

Psikologo batek 'bullying'-aren gaineko berbaldia egingo du Monterronen

E.TXO!

JOSTAILUAK TRUKATZEKO MERKATUA EGINGO DUTE
Txatxilipurdiko Haur Sailak jostailuak trukatzeko merkata egingo du abenduan. Horretarako, deialdia egin dute etxean erabiltzen ez diren jostailuak batu eta merkatuan esku hartzeko. Jostailuak eramaten dituztenei bonu bana emango diete, merkata egiten dutenean gura dutena eros edo alda dezaten. Eguaztenean, azaroaren 3an, Musakolako San Antolin eskolan batuko dituzte jostailuak, 18:00etatik 20:30era. Eta egubakoitzean, hilaren 5ean, Seber Altuben, ordu berean.

GAZTETXEEN ALDEKO MANIFESTAZIOA

Gaur, egubakoitza, gaztetxeen aldeko manifestazioa egingo dute Bilbon, 20:30ean. Horretarako, eskualdeko gazte batzarrek autobusa antolatu dute. Garibaitik irtengo da, 19:00etan.

Horrez gain, Bilboko Sorgintxulo gaztetxea ixten badute, egun horretarako kontzentrazioak deitu dituzte Euskal Herriko plaza nagusietan, 20:00etan.

GRAFITI IKASTAROA TXATXILIPURDIREKIN

Txatxilipurdiko Gazte Sailak grafiti ikastaroa antolatu du 12 eta 17 urte bitarteko arrasatearrendako. Eguaztenetik (azaroak 3) abenduaren 29ra arte egingo dute, eguaztenean. Martitzena aurretik eman beharko da izena, eta 20 euro ordaindu beharko dira. Plazak mugatuak dira.

BIDEO EMANALDIAK, LUDOTEKAKOENDAKO

Datorren egubakoitzean, azaroaren 5ean, bideo emanaldia emango dute Okendoko ludotekako erabiltzaileendako. 17:00etan egin dute hitzordua.

BI KONZERTU EGINGO DITUZTE GAZTETXEAN

Datorren asteburuan bi kontzertu egingo dituzte gaztetxean: egubakoitzean, hilaren 5ean, Berri Txarrak eta Inadaptats taldeek; eta zapatuan, hilaren 6an, Kaotiko eta Falta de Riego taldeek. Biak hala biak 22:30ean izango dira.

TXIKILANDIARAKO BEGIRALE DEIALDIA EGINGO DUTE

Interesatuak jo Txatxilipurdira lehenbailehen.

ZAHARREN ETXETIK



ARTXIBOA

Adituek azpimarratu dute erretiratuek erabaki behar dutela egoitza batera joan gura duten edo ez.

Erretiratuek gero eta autonomia handiagoa dute erabakiak hartzeko

IKER BARANDIARAN

Erretiratuek erabakiak hartzeko gero eta autonomia handiagoa dute. Hala esan zuen Marije Goikoetxea psikologoak Bilbon egin duten euskal geriatría eta gerontologiaren gaineko biltzarrean.

Biltzar horretan azpimarratu zutenaren arabera, azkeneko 30 urteotan erretiratuen kopurua %7 handitu da; beraz, gaur egun, biztanleen %25 daude adin tarte horretan. Orrialde hauetan askotan aipatu dugun moduan, bizi-itxaropena handitu izanak gizartea beste egoera baten aurrean jarri du.

Besteak beste, egoera horrek eragin du gero eta erretiratu gehiagok familiarrek laguntza behar izatea edo bestela gizarte zerbitzuen premia izatea.

Horren harira, eztabaida piztu da honako gaiaren gainean: erretiratuek edozein erabaki hartzeko gauza izan beharko luketen edo ez. Hau da, esaterako, erretiratuak berak egoitza baten bizi

gura duen edo ez; ospitale batera joan gura duen; eta haren seme-alabek zaintzea aukeratuko duen edo ez.

Marije Goikoetxea psikologoak geontologia eta geriatriaren biltzarrean azaldukoaren arabera, erretiratu batek etxean bizi izateko diru nahiko badu, ezin du

Geriatría ez dago osasun publikoan

Zahartzarora elkarteko presidente Juan Jose Calvo Agirrek honako salaketa egin zuen: **Espainiako Estatua dela geriatría arloa osasun publikoaren barruan ez daukan Europako herrialde bakarra. Erakundeei eskaera hori abiarazi zien, eta horrek duen garrantzia azpimarratu zuen, gero eta eskaera handiagoa dagoelako.**

inork egoitza batera joatera behartu.

NORK BERE ERABAKIAK HARTU

Biltzarrean azpimarratu zutenaz, orain arte beste batzuek erabaki dute erretiratuen orde, baina hori, dagoeneko, aldatu egin da. Horretan eragin handia izan dute orain dela gutxi atera dituzten Autonomiaren Legeak eta Aurreborondateen Legeak.

Horren harira, nabarmendu zuten iraganean gizarte laguntzaile batzuek erabakitzen zutela erretiratuak egoitzetara eramatea. "Gaur egun, ezin da horrela jokatu. Gero eta erretiratu gehiago gauza dira euren bizitzaren gaineko erabakiak hartzeko", azpimarratu zuen Goikoetxeak.

Hala ere, gizarte arloko langileek, oraindik, erabaki zehatz batzuk hartzeko eskumena daukate: erretiratu batek ezin du exijitu prestakuntza orokorretatik kanpo dagoen zerbitzu bat. Horrez gain, erretiratuek langileei ezin izango diete eskatu osasunagatik kontraindikaturatu dituzten zerbitzuak edo bestelakoak.

LABUR

Abaroa erretiratuen elkarteak mahai-jokoan txapelketa antolatu du azarorako

Abaroa erretiratuen elkarteak laster abiaraziko du mahai-jokoan txapelketa. Txapelketa azaroaren 25ean egingo dute, baina interesatuek azaroaren 10etik 12ra bitartean eman beharko dute izena elkartearen bulegoan. Honako jokoa izango dituzte: mus, tute, briska eta billarra, hain zuzen. Horrez gain, aditzera eman dute dagoeneko salgai daudela Gabonetako otarren txartelak.

Nagusi 04 azoka arrakastatsua izan da; 90.000 lagunetik gora joan da ikustera

Nagusi 04 azokaren antolatzaileak oso pozik daude berorrek izen duen harrerarekin. Azaldu dutenez, 90.000 lagunetik gora ibili da azokan. Horrez gain, antolatzaileak oso pozik daude, metroaren zerbitzuari esker, interesatuek Bilbao Exhibition Centre aretora joateko erraztasunak izan dituztelako. Batez ere, erretiratuak, gizarte laguntzaileak eta erretiratuen senitartekoak ibili dira.



Ibarreko arduradunak, Garoñan

Orain dela gutxi, Debagoieneko hamar erretiratuen elkarteetako arduradunek txangoa egin zuten. Araba eta Burgos aldean ibili ziren. Villarcayon paseoa egin zuten, eta ederto bazkaldu zuten. Horren ostean, Garoñako zentral nuklearra bisitatzen egon ziren. Eguna ondo bukatzeko, Medina del Pomarrena joan ziren, hango jaiak zirela aprobetxatuz. Zoritxarrez, laugarren jaieguna zen eta ez zuten giro handirik aurkitu.

Dena dela, antolatzaileen helburua zen euren arteko harremanak sendotzea, eta hori lortu egin dute. /I.B.

ileapaindegia peluqueria

GORKA

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Bainuetxe 10 - 943 77 13 78
ARETXABALETA

CARMEN
Ile apaindegia

Berriro ere
larunbatetan irekita
09:00etatik
14:00etara

Astelehenetik
ostiralera
09:30etik 18:00etara

Ferrerias kalea 50
Arrasate
Tel.: 943 79 03 63

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

EZETZASMATU



'NIE HAURTZAROKO ARRASATE' LIBURUA

Zela deitzen dira Aste Santuko prozesioetako *katxoborratxoak*? Arrastoa: Kristoren zigortzaileak ziren eta barazki izena dute.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN** ARRASATE PRESSERA!

Nocilla krema, zapore bat edo bi
3ontziño packa, 215 g

3,19€ 506 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JUAN C. OLABARRIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Juan!
Galderen erantzun zuzena:
Iturripen.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko bideen gaineko irakurgai (II)

ARRASATEKO BASERRI... / G. ARZELUS

Bideen sailkapenaren barruan aurrera eginez, mando-bideak, auzo-bideak, estratak, errege-bideak eta oin-bideak aztertuko ditugu bigarren atal honetan, Gotzon Arzelusen *Arrasateko baserri-auzoetako bideak* liburuari esker:

"Batez ere, mandoak erabiltzen dituzten bideak dira, eta gehienetan burdibideak baino zertxobait estuagoak dira. Burdibideetan ez bezala, zorua lurtsua izatea komenigarria da, modu horretan, abereak (kasu honetan mandoak) ez baitira labantzen. Mandobide izena mandoak handik ibiltzen zirelako datorkie, hau da, beste hainbat bide izen bezala, honakoa ere erabilerak ekarri du".

Auzobideak, berriz, auzolanean egindako bideak dira: "Oro har, herri bateko auzotarrek haien lurretara edo barrutietara zuzenduak dituzten bideak dira, auzolanean (...) zabalduak, alegia. Auzobideak, auzotarrek eginkoak direnez, zorbideak ere badira, zenbait tokitan herribide izenez ezagutzen zirenak. Bestalde, bide horiek urtean behin auzolanean berrizten dira, behar haundirik ez badago bederen.



ARTXIBOA

Estrada bide hitzaren sinonimo bat dela esan dezakegu.

Estrada edo estrata ere bide hitzaren sinonimo bat dela esan dezakegu. Normalean, estradak ezaugarri konkretu batzuk betetzen dituzten bideak dira, baina herri edo toki guztietan ezaugarri horiek ez dira berdinak eta leku batetik bestera aldaketak egon dai-

Nolabaiteko garrantzia zuten herriak lotzen zituen errege-bide batek

tezke. Zentzu horretan, estrada bat zer den argitzeko honako azalpen hauek emango ditugu: 'errekarriz lauzatutako bide edo kalea, bereziki meharra edo aldapan dagoena', 'bi horma edo hesien artean doan bidea' eta 'bi erai-kuntzen arteko etxartea'.

Erregebideen gainean zera dio liburuak: "Antzinako bide zabala, Estatuaren ondasunen kontura egina eta gurdiak ibiltzeko gauza dena. Horrez gain, nolabaiteko garrantzia zuten herriak lotzen zituen. Gipuzkoan duela pare bat mende zabaldu zen, Francisco de Ibero maisu azpeitiarraren eskuetik, eta Gatzaga, Arrasate eta Bergararik pasatuz Iruneraino iristen zen. Oso bide garrantzitsua izan zen, gaur egun dugun bide sarea ulertzeko nahitaezkoa. Herriak haien artean batzeko balio zuten, eta horrela adierazten dizkigute orduko zenbait debeku eta behar-kizunek: ferra-gurpilezko burdiek edo gurpil zorrotzak zituztenek debekatuta zuten erregebideetatik ibiltzea, zuloak egin eta harri koskorak jasotzen zituztelako. Bide bazterretako harriak bananduz gero, berehala konpontzeko behar-kizuna zegoen; bideak zuloak zituen tokiak lurrez bete behar ziren, beti ere, bidearen kurba mantenduz. Eta bide bazterretako ubideak garbi mantendu behar ziren". Bukatzeko zera dira oin-bideak: "Sendak edo bidezidorrak dira, hau da, gizonak haren joan eta etorrietan bakarrik zabaldu-tako bideak". Bide estuak dira, pertsona bakarrarendako eta ez dira animaliak pasatzen.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko urriaren 29a / 127. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Datorren astean erabakiko dute 2005ean udal zergek zenbateko igoera izango duten

UBANE MADERA

Astebetean atzeratu du udalbatzarrek datorren urteko zergen gaineko azterketa. Horrenbestez, datorren eguaztenean egingo dute ez ohiko batzar moduan, 18:00etan.

Datorren urteko zergei begira, berritasunak egingo ditu Udalak. Horien ondorioz, atzeratu egin zaie lana eta erabaki dute datorren astean egingo dutela zergen gaineko osoko batzarra. Hain zuzen ere, gai bakar hori landuko dute datorren asteko batzarrean.

APAREJADOREA ETA ARKITEKTOA

Edozelan ere, herenegun, eguaztenea, urriari dagokion ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarra. Landutako gaien artean, besteak beste, Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi zuen kostata baina lortu dituztela behin-behinerako aparejadorea eta arkitektoa Aramaioko Udalean jarduteko. Hain zuzen ere, Arrasateko bi lagun hartuko dituzte Alberto Mendietaren eta Xabier Berridiren lana betetzeko. Alkateak jakinarazi zuenaren arabera, bi pertsona horiek lanean jardungo dute harik eta aipatutako



Iaz Udalak ez zuen zergarik igo, ez zuelako beharrezkoa zen txosten ekonomikoa aurkeztu.

bi lanpostuak lehiaketa publiko-ara ateratzen dituzten arte. Horrenbestez, hilabete batzuetarako lana izango dute Aramaion.

Gai horrez gain, bestelakoak ere landu zituzten zinegotziek eguazteneko batzarrean. Adibidez, UEMAko ordezkari

Mertxe Mondragon izatea. Arexolako lanen berri ere izan zuten eta baita ere udaletxeko berri-tze lanen berri.

Aramaioko Udalak lortu ditu behin-behinerako aparejadore eta arkitekto bana

Albistearen idaztean osoko bilkura bukatu barik zegoenez, ez dugu jakiterik behin betiko erabakiak

Bestalde, Emilio Perez parrokoak elizan egin beharreko lan batzuetarako eskatutako dirulaguntzaren gainean erabaki behar zuten zinegotziek eta baita ere zein dirulaguntza eskatuko dioten Arabako Foru aldundiari bideak konpontzeko.

Edozelan ere, albiste hau idaztean osoko bilkura oraindik bukatu barik zegoen. Hortaz, ez dugu jakiterik zeintzuk diren udalbatzarrek hartutako behin betiko erabakiak.



50 urte bete dituztela-eta, ospakizun ederra

1954an jaiotako 20 lagun elkartu ziren asteburuan Errioxara joateko. Kontatu digutenez, 10:30erako Biasteriko Marañon ardandegian zeuden, hura ikusten eta hamarretakoa egiten. Horren ostean, Biasteriko alde zaharra ikusi zuten, baita hango ardandegi-museoa ere. Gero Izadi ardandegian bazkaldu zuten eta egundoko bazkalondoa izan zuten, kantaldi eta guzti. Kontatu digute jendea oso gustura ibili zela eta komentatu zutela akaso bost urtean behin egingo zutela halako beste bat.

LABUR

Eskolako tartak salgai izango dira biharko azokan

Biharko azokan izango diren saltokien artean San Martin Eskolako seigarren mailako ikasleak izango dira. Azken urteotan moduan, etxean egingo dako tartak salduko dituzte. Gero, eta iaz egin zuten moduan, batutako dirua gobernu kanpoko Harreman erakundearekin emango diote. Saltokian, ikasleekin batera gurusoak ere ibiliko dira tartak saltzen. Jakinarazi digute aurtengo 14 ikasle dabilzala seigarren mailan, horrenbestez 14 tarta ipiniko dituztela salgai.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Borika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuzako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Domu Santu eguna dela-eta, Aramaioko zinema zaleek aldatu egin dute asteburuko zinema emanaldia. Hala, barikuan beharrean, domekan emango dute oraingo asteko filma, 22:30ean. Hain zuzen ere, Wolfgang Peteresen zuzendararen *Troya* abenturazko filma emango dute. Aktoreen zerrendan, besteak beste Brad Pitt, Orlando Bloom eta Diane Kruger aktoreek parte hartuko dute. 163 minutuko iraupena du filma horrek.

DOMEKAKO ZINEMA

Laster hasiko dira berriro ere domeketan filmak ematen. Izan ere, Udalak esleitu du zerbitzua. Hain zuzen ere, kiroldegiaren kudeaketaz eta bestelako lanetaz arduratzen den EKO enpresak egingo du lan hori.

ZUHAITZA MOZTUKO DUTE

Gabonetako argiak ipintzen direnean, hori egiteko erabiltzen duten garabia aprobetxatu eta plazan dagoen haritza moztea erabaki du Udalak.

Gabonetarako bukatuko dituzte udaletxeko lanak

UBANE MADERA

Atzerapenarekin dabilta udaletxeko berritzeko lanak egiten, baina, laster dira bukatzekotan. Lanak egiten dabilen enpresakoek adierazi digute Gabonetarako bukatuko dutela guztia.

Bergarako Mauricio Arregi enpresa dabil Aramaioko Udala berritzen. Hala, enpresako kide Xabier Zubizarretak iragarri

digunez, atzerapenarekin ibili arren, laster bukatuko dituzte lanak. Hain zuzen ere, esan digu Gabonetarako herritarrek erabilgarri izango dutela herriko Udala. Besteak beste, igogailu berria estreinatu ahal izango dute. Eta udaletxean egin dituzten aldatetakoak ikusi, bereziki, herritarren arreta zerbitzuak izango dituen hobekuntzak. Horrez gainera, udaletxeko erlojuari, adibidez, mekanismo berria ipini diote. Horregatik dago orain geldia.



Besteak beste, udaletxeko lanak bukatzean, igogailua izango du eraikinak.

BOTEPRONTOAN/ Jabier Uribarren · Alaiak elkarteak presidentea

“Alaiak elkartearen betebeharririk handiena herriko erretiratuen arteko harremana bultzatzea da”

Bihar, zapatua, Erretiratuen Eguna izanda, egokia iruditu zaigu herriko erretiratuengana gerturatzea. Horretarako, Alaiak erretiratuen elkarteak presidentea Jabier Uribarrenengana jo dugu. Elkarteak kultura etxean duen lokalean hartu gaitu, behar denerako gertu:

Hasi baino lehen elkarrizketatua aurkezteko ohitura dugu: Jabier Uribarren zara, Alaiak elkarteak...

Presidentea. Orain dela urtebete hasi nintzen, eta lau urtean behin aldatzen dugu. Hortaz, hiru urte geratzen zaizkit.


Zer moduz portatzen dira Aramaioko erretiratuak?

Oso ondo. Elkarteak 186 bazkide gara.

Hori asko da, ezta?

Bai, asko da. Baina esan beharra dago elkarteak badagoela talde txiki bat alargunena eta pentsiodunena. Edozelan ere, alargun bi kenduta, beste guztiak 60 urtetik gorakoak dira. Bestalde, bazkideok kuota txiki bat ordaintzen dugu (0,60 euro, lehengo 100 pezeta) gure lanetarako, eta kanpotik ematen dizkiguten laguntzekin (Udalak eta Diputazioak) egiten ditugu eginkizunak.

Eta zer ekimen egiten dituzte?



“Gure elkarteak Arabako Cuatro Torres izeneko federazioaren barruan dago”

zue? Urteko urtaroen arabera zatitzen ditugu eginkizunak: udaberriaren, batez ere, kartajokoak egiten ditugu: musa, tute eta briska. Uda amaieran egiten dugu ekitaldirik handiena: Aste Kulturala. Aurten, adibidez, mayen gaineko diaporamak eman ditugu eta pentsatu dugu datorren urtean Urkiolako, Gorbeia... gertuko diaporamak ematea. Edozelan ere, oraindik ez dugu kudeaketa plana erabaki, baina berehala hasi behar dugu horretan. Horrez gainera, udan osasunarekin lotutako hitzaldiak antolatzen ditugu; bidaia kultural bat (aurten Iruñera joan ginen, eta, besteak beste, katedrala ikusi genuen) eta bazkaria, eskolan. **Eta udazkenean?** Aramaiok eta aramaiorrek lotura handia dute baserri-giroarekin. Hala, beti ahalegin-

tzen gara halako azokaren baterako txangoa antolatzen. Aurten, Gernikan izan gara. Eta neguan Gabon jaia antolatzen dugu. Dagoeneko bagabiltza lanean. Luntxa ematen dugu eta mus txapelketa ere egiten dugu. Eta, bestalde, Udalak edozertarako laguntza eskatzen digunean, hori ere egiten dugu. Edozelan ere, esan beharra dago gure lanik handiena dela erretiratuen arteko harremana bultzatzea.

ibarrakoez gain, auzoetako erretiratuak ere etortzen dira elkartera?

Bai. Auzoetan, egunero egoteko txokoa izaten dute bertan, baina askotan, medikuarengana-edo etortzen direnean, hona etortzen dira. Egunero egoten dira hemen partidak (gizonenak). Eta astean bi egunean (egunetan eta zapatuetan) andreak elkartzten dira. Baserrietatik ere etortzen dira halakoetara.

Bi lokal dituzue, ezta?

Bai, baina guztia batean dago. Sukalde eta guzti dugu. Pozik gaude lokalarekin.

Eta lokala zabalik dago?

Nork bere giltza du. Izan ere, hemen ezin dugu atezainik kontratatu. Eta bestela, elkarte gastronomikoen moduan funtzionatzen du.

LABUR

Korrikako materiala salgai ipiniko dute Erretiratuen Eguneko azokan

Bihar, Erretiratuen Eguneko azokan izango diren saltokien artean, bat berezia izango da. Izan ere, 2005ean XIV.Korrika egingo dute. Hala, AEKkoek Korrikaren aldeko materialarekin Aramaioko azokan saltokia ipintzea erabaki dute. Arrasateko AEKko arduradun Oskar Elizburuk jakinarazi digunez, ibarrean Korrikaren materiala salgai ipiniko duten aurreneko lekua izango da Aramaio. Halakoetan ohi denez, kamisetak, txamarrak, prakak, metxeroak... eta antzerakoak izango dira Korrikaren saltokian aukeran.

Horrekin batera, Aramaiorendako albiste pozgarria ere eman digu Oskar Elizburuk: XIV. Korrika Aramaiotik pasatuko da. Uda-berriaren izango da, martxoa aldera-edo. Oraintsu dabilta prestatze lanak egiten. Edozelan ere, asmoa da Korrikak Arrasate, Aretxabaleta eta Aramaio zeharkatzea.

Bi autobus bete erretiratu joan ziren Aramaiotik Gernikako azokara

Oso balorazio positiboa egin digu Alaiak Erretiratuen Elkarteak Gernikako azokara antolatutako txangoaren gainean. Esan digutenez, bi autobus bete erretiratu joan ziren. Hala, 13:00ak arte Gernikako azokan ibili ziren. Eta horren ostean, handik Lekeitiora joan ziren. Baina ez edozein lekutara, ez. Izan ere, Lekeitioan bada Oleta izeneko leku bat; bada haraxe joan ziren Aramaioko erretiratuak, bazkaltzera. Lekeitio bazkaltzeaz gain, zera ikasi zuten: esaten dutenaren arabera, hango eliza eta Aramaioko arkitekto berak egindakoak direla. Bapo bazkalduta ostean, berriz, Mutrikurara joan ziren. Eta han ere nahi zutena egiteko aukera izan zuten Aramaioko erretiratuek. Hala, batzuk txikiteoan ibili ziren eta beste batzuk Mutrikuko bazterrak ezagutzen ibili ziren. Oro har, oso egun ederra pasatu zutela kontatu digute.

“Erretiratuen Eguna eta Cuatro Torresko eguna bat datozenez, bata egunez aldatu nahiko genuke”

ERRETRATU ZAHARRA

'Loramendi'-ri egindako bigarren omenaldia

Arrasatek emandako seme-alaba entzute-tsuen artean, bazen poeta bat: Joakin Arana Ezpeleta *Loramendi* bedoñarra. Hain justu ere, oraingo asteko argazki zaharra poeta harekin lotuta dago; izan ere, 1959ko irailaren 20an omenaldia egin zioten *Loramendi*-ri jaiolekuan. 1933an hil zenetik (26 urte eskasekin) egin zioten bigarren omenaldia izan zen hura. Eta ospakizunean egon zirenen artean, eta nahiz eta eguneko kronikek hala ez aipatu, Gabriel Aresti bizkaitar idazlea etorri zen Arrasatera.

Argazkian Aresti bera agertzen da, neska dantzari batekin dagoen betaurrekodun gizonetako. Dantzaria, berriz, Txaro Azpiazu zen. Bestalde,

50eko hamarkadan euskararengatik asko egin zuen beste arrasatear baten ondoan dago Gabriel Aresti: Bernabe Berezibar da atzeko gizona.

Bedoñako omenaldi hura Euskaltzaindiak antolatu zuen eta jendetza izugarria erakarri zuen Bedoña auzora. Besteak beste, Antonio Arrue euskaltzainak hitzaldia egin zuen eta *Basarri* eta *Lizaso* bertsolariak bertso-saioa. Edozelan ere, une hunkigarriena izan zen *Loramendi*-ren amak etxe aurreko plaka denen bistan ipini zueneko. Lehenago, 1935ean ere ipini zuten beste plaka bat, baina gerran desagertu zen hura.

Argazkia: 'Nire haurtzaroko Arrasate'
Informazioa: 'Nire haurtzaroko Arrasate' eta ARRASATE PRESS
Urtea: 1959



NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Norte tailerraren azken eguna

Kontzezinoko eta Zerrajerako inguruak asko aldatu ziren 1997tik aurrera. Inguru horretan, Deba ibaiaren zati handi bat estalita zegoen, eta errepidean hainbat aldaketa egin behar zituzten. Horretarako, lehenengo lana zen traban zeuden eraikinak botatzea, eta Norte tailerra zen horietako bat. 1997ko azaroaren 25ean bota zuten tailer hura.



≈ 1997 Asteleheneko osoko bilkuran erabaki zuten Kontzezinoko konpentsazio proiektua, eta eguaztenerako bota zuten tailerra.



2004 Dakigunez, eguazten hartan hondeatzeko makinak ez zuen lan handirik egin behar izan Norte tailerreko hormak botatzeko.

OGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE


S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Aretz

taberna

"Oilaskoak eta paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

igo autobusera



**Astelehenetik
egubakoitzera**

Goizeko 9etatik aurrera

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian
Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otolora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- BEGOÑA BARCINA Otolora lizentziaduna 29 635 70 88 88
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22